

# Ekonomia Feminista

Jubeto, Y. (2011)

## 1. SARRERA

Ekonomia zientzia eratu zenetik XVIII mendean, autore nagusiek eremu publikoa eta pribatua bereizi zituzten, bigarrena haien ikusmiratik kanpo utziz. Hasiera batean, autore klasikoek beren garaiko sistema kapitalistaren ezaugarri nagusiak aztertu zituzten, batik bat aberastasunaren jatorriaz zein banaketaz arduratu baitziren beren idazlan nagusietan (Smith, A. 1767; Ricardo, D. 1817; Malthus, Th. 1798, Mill, J. St., 1848,...), sistema ekonomikoaren funtzionamendua hobeto ulertzeko edota iraurazteko. Karl Marx-ek (Kapitala, 1867-95) eta bere jarraitzaileek, aldiz, sistema kapitalista sakontasunez aztertu ondoren, gainditu beharreko sistema zela aldarrikatu zuten.

Ondoren, mendebaldean eragin gehien izandako eskolak, hau da, eskola neoklasikoak, merkatua baliabideen esleipenaren mekanismo onena dela aldarrikatu du, konkurrentzia perfektuaren funtzionamendua aztertuz eta goraipatuz. Halaber, merkatuaren hutsuneak ikusita, beren ikerketa esparrua zabalduz joan arren, eremu pribatu barruan dauden jarduera ekonomikoak ez dute kontuan hartu, "household economics" sortu arte. Aldi berean, beste eskola batzuk sortzen joan dira. Hala ere, Keynesek eta bere jarraitzaile post-keynesiarrek, adibidez, nahiz eta ezberdintasun nabariak izan neoklasikoekin erkatzen baidugu, sustrai beretik abiatu ziren eta ikerketa eremua berdina izan zen. Zenbait autorek, aldiz, funtzionamendu ekonomikoan instituzioen zeregina eta eragina azpimarratu zuten, instituzionalistek eta eboluzionistek, bereziki.

Hortaz, ekonomia-eskola gehien arduratzen nagusia merkatuaren funtzionamendua aztertzea izan da, sistema ekonomikoa merkatuari eta berarekin loturiko sektore ekonomikoek bakarrik lotuta egongo balitz bezala; eta bigarren maila batean, Estatuaren zeregina kontuan hartu dute. Hau da, merkatua eta Estatuak izan dira aztergai, bereziki. Beraz, eskema horretatik kanpo utzi duten jarduera multzo handiena etxean edo kolektibitatean egiten diren lanak eta beren ekarpenak topatzen ditugu, gizartearen mantenurako zein sistema ekonomikoa bere osotasunean aztertu eta ulertu ahal izateko funtsezkoak diren arren. Zenbait autorek jarduera horien garrantziaz jabetu arren (aurrerago ikusiko dugun bezala), eremu ekonomikotik kanpo utzi dituzte, eta hori da, hain zuzen, guri ikerketa honetan gehien kezkatzen zaigun arloa.

Dakigunez, esparru horiek (eremu pribatua eta komunitatearena) izendatuak

izan direnak) bereziki emakumeen ardura izan dira mendeetan zehar munduko herri gehienetan. Michelle A. Pujolek [Pujol, M. 1992] oso argi azaltzen duenez, emakumeak ez dira normalean agertzen ekonomista ezagunen idazkietan. Ez dira aipatuak ere izaten, eta gehienez, oin oharretan edo adibide bitxi batean sartuak dira. Ez dago batere argi “ekonomiaren legeak” (unibertsaltzat hartzen badira ere) haiei aplikatu dakiekeen. Beraz, gainera ikusita, badirudi emakumeak ikustezinak izan direla ekonomian.

Hala ere, autore beraren iritziz, ekonomi testuak zehatzago arakatu ondoren, nabaria da emakumeak ez direla guztiz ahaztuak izan, baizik eta haien irudia arauen salbuespen bezala eraikia izan dela. Dirudenez, beste leku batean daude, nonbait, baina ekonomiaren eremutik kanpo. Hori dela eta, beren parte-hartzea nazio baten ekonomia jardueretan, parte hartuz gero, marjinala dela nabari gelditu ohi da, ekonomi eragilearen estatusa ukatzen baitzaie. Beraz, aipatuak direnean, eginkizun marjinala eta bigarren mailakoa ematen zaie [Pujol, M.1992: 1].

Azken hamarkadetan, ukazio horri erantzun nahian ekonomia-teoria feminista osatzen hasi da. Lehendabizi, lan merkatua eta nazioarteko ekonomiari buruzko azterlanetan emakumeen parte-hartzearen bilakaera eta egoera ikertu da, eta hortik abiatuta eremuak zabalduz joan dira, ekonomia bere osotasunean aztertzeraino. Oraingoz urrats handiak eman behar baditu ere, teoria horren oinarriak sendotzen hasi dira.

Hortik abiatuta, ekonomia feministaren kezka nagusien artean gizon eta emakumeen arteko disparekotasunak murrizteko zer nolako urratsak eman behar diren, eta gero eta gizarte kohesionatuagoa lortzeko lan-ildoak topatzen ditugu. Hortaz, azken mendeetako ekonomia zientziaren bilakaeraz eta ekonomia feministaren ekarpenaz jardungo dugu atal honetan.

## **2. EKONOMIA TEORIA FEMINISTAREN BEHARRA**

### **2.1. Zergatik da beharrezkoa ekonomia- teoria feminista?**

Azken hamarkadetan, bereziki, 80. hamarkadatik aurrera, ekonomia- teoria feminista baten lehenengo urratsak ematen hasi dira eta, aldi berean, eta aurrekoarekin lotura estua duena, genero eta garapen ekonomikoaren arteko harremana aztergai duen literatura ekonomikoa garatuz joan da. Georgina Waylen-ek dioen bezala (1997) ekonomia-teoria feministak teoria ortodoxoaren kritika egiteaz gain instituzioetan eta prozesu ekonomikoetan generoak daukan garrantzia azpimarratzen du. Halaber, teoria nagusi horren oinarriak, hau da, hautaketa arrazionalak, etxeko naturak eta publiko/pribatuaren arteko banaketak defendatzen dituzten hipotesiak kolokan jartzen ditu.

Atal honetan, ekonomia-teoria feministaren beharra hobeto ulertzeko, aurreko ekonomia-teoria nagusiek arlo honetan izandako ikuspuntuak laburbilduko ditugu. Askotan, emakumeek aurrera eramandako jarduera ekonomikoak “ezkutuan” geratu direnez, egindako azterketa nagusiak eta haien gabeziak abiapuntutzat hartuko ditugu; horren ostean, ekonomia-teoria feministaren ildo nagusiak eta aldarrikapenak bilakaera horretan kokatuko ditugu.

Azken hamarkadetan, ekonomilari feministok egindako azterketak alde horretatik hasi dira, hots, aurreko ekonomia-teoria nagusiak aztertzen. Teoria behinenak aztertu orduko, gaur egun ekonomia zientziak oraindik ere eduki androzentriko ugari dituela ondorioztatu dute (Nelson, J. 2003:7)), eta autore batzuen iritziz, eduki misoginoak ere [Dominguez, R. 2001:181]. Hau da, autore batzuek emakumeekiko gorroto eta ukazioa islatzen dute haien azterketetan. Hortaz, bai munduaren antolamendu ekonomikoa azaltzerako orduan bai irakaskuntzan azalpen partziala eskaintzen duen zientzia osatu dute.

Ekonomilari feministen presioen ondorioz, ekonomia zientzian aldaketak sartzen hasi dira. Emakumeen lanari buruzko ikerketak, bai lan merkatuan bai etxean edo komunitatean, eta eremu hauetan sexuen arteko ezberdintasunak, paradigma ezberdinetan agertzen hasi dira (marxistan, instituzionalistan, neoklasikoan, ...). Aipamen hauek, hala ere, autore batzuen iritziz, [Madden, 1972; Bergmann, 1987] gizonetzkoen ikuspuntutik abiatuta egin ohi dira eta ideologikoki aurreiritziz josita daude.

Jarrera honek sorburu ezberdinak ditu. Ferber eta Teiman-ek egindako ikerketan (1981), ondorioztatzen dutenez, gizarte zientzien artean gizonen menpe gehien egon den diziplina ekonomia izan da. Emakumeak, historikoki eta gaur egun ere, lanbide horretatik kanpo egon dira, batik bat, eskola neoklasikoan. Gainerako paradigma alternatibotan, berriz, alboraketa hain nabarmena izan ez bada ere, sarritan, bazterturik izan dira.

Izan ere, gainerako paradigmek, nahiz eta, haiek ere, merkatu jardueretan zentratu, bereziki, ikuspuntu zabalagoa erakutsi dute; kapitalismoarekin batera sortu diren gizarte- eta klase-harremanak kontuan hartu baitituzte. Dena den, teoria gehienek genero-harremanak nahiko ahaztuta izan dute, orain dela oso denbora gutxi arte. Gaur egun, nazioarteko ekonomiaren azterketen ondorioz, hein handi batean, (globalizazioaren inguruko hausnarketak, batik bat), disparekotasun ekonomikoak eta merkatuz kanpoko jarduera ekonomikoak, gero eta garrantzi gehiago hartzen hasi dira, eta aldaketak bultzatu dituzte. Oro har, esan dezakegu, diziplina honetan nagusi izandako ikuspuntu estua desegokia izan dela emakumeen bizitza eta kezak aztertzeko, eta gabezia horiei aurre egiteko asmoz ekonomia-teoria feminista sortu

dela (gaur egun eratzten ari den teoria izanda). 80. hamarkadatik aurrera, ekonomiari buruzko hausnarketa feministak ikerketa esparrua zabaldu dutenez, errealitatea hobeto ezagutzeko eta aldarazteko tresnak eskaintzen edo haien beharra islatzen hasi dira, eta horrek dauden disparekotasunei aurre egiteko aukera gehiago zabaltzen dituela, zalantzarik ez dugu.

## **2.2. Analisi klasikoaren hutsuneak**

Analisi klasikoak genero harremanekiko izandako jarrera eta, bereziki, emakumeek gizartearen antolakuntzan eta funtzionamendu ekonomikoan izandako zereginari buruzko hutsuneak azaldu baino lehen bere garaian kokatzea beharrezkoa jo dugu. Izan ere, ekonomia politikoak, diziplina gisa sortu zenean, emakumeen jarduerak baztertu zituen, XVIII mendean zegoen sexu honekiko jarrera eta mentalitate menderatzailearekin bat eginez.

XVIII mendean eratu zen sailkapen dual- hierarkikoa (aurreko mendeetan antolatzen joan zena) ekonomia- teoria nagusietan erroturik geratu zen. Eraikuntza honen laburpen gisa Rafael Dominguez-ek (2001) egindako eskema jarraituko dugu. Hor ikusten dugu (1. irudia) mendebaldeko filosofo eta pentsalari ospetsuenek mundua bi eremutan banatu zutela. Alde batetik, eremu publikoa non norbanakoaren interesen nagusitasuna ematen zen, eta bestetik eremu pribatua, non betebeharrak eta ardura sozialak nagusiak ziren. Dualitatearen beste alde garrantzitsua, merkataritza eremua eta familia eremuaren arteko zatiketa azpimarratzekoa da.

Generoarekiko dualismo hierarkikoa, XVIII. mendean eratu zen eta garaiko zientzia guztietan eragina izan zuen: medikuntzan, biologian, zientzia politikoan edota filosofia moralean. Munduaren antolakuntzari buruzko irakurketa hau erabilia izan zen, emakumearen irudia eta balioa gutxiarazteko edo devaluatzeko. Horrela, arrazionala eta sentikorraren arteko dualitatea filosofian sartu zen; eremu publiko eta pribatuaren artekoa metafora politikoetan; merkataritza eta familiaren artekoa arlo ekonomikoan eta adimena eta gorputzaren arteko dualitatea bio-medikuntzan [Dominguez, 2001: 185].

Horrela, Jennings-ek (1993) dioen bezala, prozedura honen bidez, gizonezkoek, beren jarduerak (zientzia) eta beren baloreak (objetibitate razionala) unibertsalizatu zituzten bitartean, emakumeen jarduera nagusiak (zerbitzuak eta edoskitzea) eta beren baloreak (subjektibitate emozionala) pertsonalizaturik eta partikularizaturik geratu dira. Arrazoi sentikortasuna (emozioa) baino eta zientzia Natura baino garaile atera dira, gizonek emakumeak menperatzen duten bezala [Jennings, 1993:116].

Pentsamolde honen jatorrian XVII eta XVIII. Mendeetako filosofo eta pentsalari nagusien ideiak daude. Hobbes, Locke, Rousseau, Kant, Voltaire eta abar luze batek

emakumeak eremu publikotik bazterturik geratu behar zirela defenditzen zuten. Argudio ezberdinak defendituz, emakumeak gizonen menpe egon behar ziren iritzian guztiak ados zeuden, nahiz eta gizartearen bilakaera eta estatuaren sorrera azaltzerakoan ideia ezberdinak garatu. Hots, autore guzti hauek ados egon ziren emakumeaz hitz egiten zutenean, azken hauek menpekoak zirelakoan, gizonen menpe egon behar zuten; hori “zuzena” zen eta.

Eremu pribatu/publikoaren banaketa sortu zen zenbait prozesu historikoak ideologikoki justifikatzeko: Estatu, ekonomia eta familia gizarte-instituzio ezberdinak bereiztuz (Nicholson, 1986). Banaketa hori bi garai historikoetan egin zen. Lehendabizi, XVII. Mendean, filosofia politika liberala sortu zenean, bereziki John Lockek egindako idazlanetan islatzen dena. Horren bidez, Estatuaren eta familiaren funtzioen banaketa egiten sailtu zen, gizakion beharren oinarritzko banaketa eginez. Horrela, estatu liberala bultzatu zuten, norbanako autonomoaren kategoria patriarka pribatuen haragipen publikotzat sortuz (Jennings, 1992:128). Hazienda errentagarrien gizonezko buruek eskubide politiko eta status publikoa lortu zuten. Beste pertsonak, aldiz, jabetzarik gabeko gizonek, emakumeek eta umeek, banakako statusa ukaturik zuten eta horrekin batera eremu publikoetan sarbidea galarazita. Emakumeek ikusezinak ziren gizartean, nahiz eta Locke-k amatasun biologikoa eta ondorengo laguntza luzearen beharra azpimarratzen zuen familia patriarkalaren funtsezko oinarri gisa (Jennings, 1992: 129).

Adibide moduan, Humek onartu zuen gizona familia baten barruan sortzen dela, Hobbesek ez bezala (ez du hori aipatzen eta). Hala ere, familiaren azterketa egiten duenean, lanaren zatiketa “naturala” ematen dela aldarrikatu zuen. Gizonezkoak emakumeak baino nagusiago direnez gero, orduan emakumeari dagokio etxeko lanak egitea; gizonari, aldiz, dirua irabaztea eta familia elikatzea. Horrela, gizonak familiaren burua izan behar du. Zentzu berean, Rousseauk ere famili barruan sexuen arteko lanaren zatiketa bakarri onartu zuen. Bi adibide bakarrik ipintzearen. Horrela, ekonomia politikoa sortu zenean, dagoeneko, eremu pribatua eta publikoaren arteko dikotomia edo banaketa eginda zegoen, eta emakumeen mendeko papera guztiz justifikatuta zirudien. Hauxe izan zen, Nicholson-en ustez, zatiketa horren bigarren urrats aipagarria. Produkzio eta erreprodukzio eremuak zatiturik geratu ziren, produkzio industrialari familiaren eremutik at egiten hasi zelarik. Banaketa horren bidez eremuen arteko zatiketa legitimatu nahi izan zuten, egoera unibertsalizatuz eta izaera “naturala” emanez (Nicholson, 1986; Jennings 1992:127).

Eremu publiko eta pribatuaren arteko zatiketa, ekonomia eta familiaren arteko zatiketarekin batera eratu ziren. Horren ondorioz, jarduera pribatuek ez zuten esanahi ekonomikorik, eta familiako jarduerak ez zuten esanahi publikorik, beraz, emakumeek

ez zuten soldatapeko lan indarraren kide izan (Jennings, 1992: 125). Hau da, XVIII. mendeetan emakumearen zapalkuntzaren justifikazio “zientifikoa” oso landuta zegoen, eta garaiko pentsalari nagusiek horren alde ahalegin handiak egingo dituzte, nahiz eta errealitatea sarritan bat ez etorri planteamendu horrekin. Horrekin batera, ekonomia eta familiaren arteko zatiketa garatuko da. Hau ere zatiketa normatiboa izango da. XIX. mendean, nahiz eta ekonomia jarduera asko etxeko esparrutik at geratu ziren, eta beraz, familiaren esparruak murriztuz joan, hori bereziki klaseertainean gertatu zen, ez langileriaren klasean.

Eremu publiko eta pribatuaren arteko bigarren zatiketa horrek ekonomiari esanahi berria eman zion. Familia eta Estatua ekonomiarekiko definitu ziren, bere menpe baleude moduan. Horrexegatik ez da harrizkoa, Adam Smith bere idazlanetan iritzi hauekin guztiz bat zetorrela ikustea; Smith espresuki Hume-zalea agertu baita. Azken finean, esparru horri dagokionez, bere garaiko semea besterik ez zen izan.

### **Adam Smith (1723-1790) eta bere garaia**

Smith teoria ekonomiko garaikidearen “aita”tzat kontsideraturik dago lehen ekonomi tratatua berak egin zuelako. Autore askoren iritziz, Smith izan zen lehena sistema kapitalistaren funtzionamendu, egitura eta natura azaltzeko eredu sendo eta koherentea eratu zuena. Bere idazkietan sistema ekonomikoarekin batera gizartearen antolakuntza eta lege-sistemarekin loturiko gaiak ere kontuan hartu zituen. Ekonomia kapitalistaren azterketa egiten duenean, emakumeen eginkizunaz esaten eta isiltzen duena, hau da, emakumerekiko duen ikuspegia, erreferentzi garrantzitsua izango da bere jarraitzaileentzat. Hortaz, eskola klasikoak emakumeekiko erakutsi zuen jarrera ulertzeko, bai ekonomi sistema aztertzean, oro har, bai zehazki sexuaren arabera lanaren zatiketaz aritzen direnean Smith-en lana eta bere garaian zabaldu ziren sinismenak gogoratu beharko ditugu. Horrez gain, gaur egungo ekonomian sarritan erabilitako kontzeptu eta jarrera batzuk A. Smithen *Nazioen Aberastasuna* (1776) liburura eramaten gaituzte.

Smith bizi izan zen garaian eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialak izugarriak izan ziren. Bertan eremu publiko eta pribatuaren definizio berriak eratzten ari ziren, non bereizten ziren, alde batetik, merkatu ekonomiaren merkataritza mundua, eta bestetik, familiaren etxeko moralitatea.

Trantsizio horrek lotura zuzena izan zuen iraultza industrialarekin, eta garai horretan industria eta merkatua izan ziren ekonomiaren jarduera legitimo bakarrak. Etxean egiten ziren eginkizun ekonomikoak eta bertan emakumeek jorratzen zituzten lanak guztiz baztertuta eta ezkutuan geratu ziren. Bere garaikide batzuek ez bezala, Smithek ez zuen ezta aipatu ere egin ekonomia politikoa eta *Oeconomiaren* arteko

lotura epistemologikoak, hau da, estatu mailako ekonomiaren eta etxeko kudeaketaren arteko lotura. Sir James Steuart-ek (1713-1780), aldiz, horrela esan zuen: “Oeconomy, oro har, familia baten beharrak asetzeko artea da, dirua xahutu gabe eta zuhurtasunez jokatzuz. Familia batean *oekonomia* dena, estatuan ekonomi politikoa da” (Steuart, 1767).

Halaber, emakumeen parte-hartzea merkatuan eta jarduera industrialean ikusezina bihurtu zituen. Nahiz eta emakume askok parte hartu iraultza industrialean, Engelsek “Ingalaterrako langile-klasearen egoera” liburuan adierazi zuen bezala. Bertan jasotzen du, Lord Ashely-k *Komunen Ganbaran* egindako diskurtso batean esan zuen, 1839an industrian lan egiten zuten 419.560 langileetatik, 242.292 emakumezkoak zirela, hau da, erdia baino gehiago”. Pasarte hau, Smith hil ondoren idatzi eta gertatu zen arren, seguruenik aurretik ere emakume txiroek lantegietan lan egin behar izan zuten.

Smith-ek eremu publiko (merkatua, izaera kapitalista) eta pribatuaren (moral, izaera pertsonala) arteko banaketan parte hartu zuen. Bere garaiko filosofo politikoez eraikitako formalizazio horrek, gorago aipatu dugun bezala, sexuen paperak marrazten asko lagundu zion. (Rendall, 87, Pujol, 92: 22). Smith-en idazkiak teoria politiko modernoaren garapena (gizartean genero- rola arrazionalizatzen zituena) eta ekonomi teoria modernoaren arteko loturak ezartzen zituen. Gai bakoitzak liburu ezberdin batean aztertu zuenez, Pujol-ek [1992] dioenez, ikertzaileen arreta zatiturik geratu da, baina bere lanen eragina ulertu ahal izateko bere idazlanak batera aztertu behar dira.

Smith-en *Lectures on Jurisprudence*-en (1766) adierazi zuenez “herrialde gehienetan gizonak egin dituzte legeak, eta oro har, emakumeek oso gogorak izan dira, litekeena da azken hauek zapalketa honetatik irteteko aukerarik ez izatea” (Jane Rendall, 1987:64). Dena den, berak ez du lege hauen ezabapenik aldarrikatzen. Pujolen(1992) ustez, ekonomia arautzen zuen esku ikusezin patriarkalak beharrezkoa izan zezakeen emakumeak etxean, merkatuan ez bezalako baloreak (altruistak,..) garatzeko. *Nazioen aberastasuna*- ren liburuan, Smith konturatu zen emakumeen enplegua garrantzitsua zela familien bideragarritasun ekonomikorako. “Of the wages of labour” kapituluak, langileek behar zuten gutxieneko soldata aipatzen duenean, gizonen beharraz hitz egin beharrean, langilearekin loturik dagoen familiaz mintzatu zen. Bere ustez, langile baten soldata bere biziraupenerako baino bi aldiz handiagoa izan behar zen, seme-alaben biziraupena ziurtatzeko (WN: I, viii, 15).

Apenas aipatu bazuen ere, emakumeek merkatuan lan egin behar zutela onartzen duela ematen du, Smith-ek esaten baitu: “Emaztearen lanak, umeak zaindu behar dituela kontuan hartuz, bera soilik mantentzeko nahikorik izan behar du.” Eta

aurrerago jarraitzen du: “Horrela, dirudienez, familia bat hazteko, senar-emazteen lana elkarrekin, maila behekoen lana eginda ere, nahikorik izan behar da haiek mantentzeko beharrezkoa den baino apur bat gehiago irabaztea”(WN: I.viii.15)

Paragrafo bakar honetan, badirudi Smith-ek onartzen duela Pujolek (1992)

horrela laburbildu duen egoera:

- Normalean ezkonduko emakumeek merkatuan egiten zuten lan
- Emakumeen rol erreproduktibo zela kausa, beren soldatak baxuak ziren
- Belaunaldiz belaunaldi, langileen biziraupena ahalbidetzeko, emakumeen soldatapeko eta ez ordaindutako lanak beharrezkoak ziren.

Hala ere, oso garrantzi eskasa eman zion gai horri, bakarrik beste atal batean aipatuko baitu soldata baten truke emakumeek egin beharreko lana. Kasu horretan esan zuen emakume horiek “soldata baxuak zituztela beste zeregin bat zutelako, eta hori zen beren biziraupenerako atal nagusia”, adb. etxeko zerbitzuak. Bere jarraitzaileek ere biziraupen mailatik beherako soldatak beste sarrera alternatibo batekin lotuko dute.

Laburbilduz, emakumeen lanaren beharraz (bai industrian bai etxean) jakinaren gainean izanda ere, liburu osoan produkzio kapitalistaren natura, antolakuntza eta funtzionamendua aztertzen dituenean, emakumeak guztiz bazterturik uzten ditu. Lanaren zatiketaz hitz egiten duenean ez du behin ere emakumeak aipatzen; beraz, ez die baliorik ematen emakumeek nekazaritzan, industrian edota etxeetako zerbitzuetan egiten dituzten lanei. Hortaz, bera itsua agertzen da eta lan horiek ezkutuan geratzen dira.

Smithek lan produktibo eta ez-produktiboaren artean egindako banaketan, erreprodukzio lan guztiak ez-produktiboaren taldean kokatzen ditu (emakumeen etxeko lanak, gizonezko zerbitzariak, irakasleak edo tutoreak, besteak beste). Dena den, kapital finkoaz mintzatzen denean, kapitala osatzeko hezkuntza eta prestakuntza garrantzitsuak direla esango du. Hala ere, mutilentzat etxeko zein eskolako hezkuntza egokia ikusten duen bitartean, burgesiako neskentzat etxeko hezkuntza nahikoa dela beren zereginak ikasteko adierazten du (WN: V.i.f.47). Emakume langile txiroak, aldiz, ez du ezta aipatu ere egiten.

Smith-ek *Nazioen aberastasuna* egin baino lehen, emakumeen lan erreproduktiboaren osagai nagusiak, umeak edukitzearekin batera hauek zaintzea eta haztea giro egoki batean direla jasoko du, lan honen ondorioz gazte horiek langile produktiboak eta hiritar leialak izan zitezten. Baina ideia horiek ez ditu berriz aipatuko bere idazlan ekonomikoetan. Bertan emakumeak guztiz ikusezinak agertuko dira, bere jarraitzaileen idazlanetan bezala, John Stuart Mill-en salbuespenarekin. Hortaz, emakumeen ekarpen ekonomikoa, soldatapeko lanaren bidez edo etxeko lanaren



bitartez, bazterturik geratu zen, eta beren funtsezko ekarpena nazioaren “giza kapitala” birsortzen ere jakintzat hartzen da.

### **Jean-Baptiste Say-ren emakumerekiko ikuspuntua**

XIX mendeko beste autore ospetsu bat **Jean-Baptiste Say**<sup>1</sup> da. Aipatzea merezi du bere ekonomia-tratatuak (*Traité d'économie politique*, 1803) eta bere idazkiak, oro har, oso oihartzun handia izan baitzuten bere garaian, Frantzia ez ezik, Europan zein Ameriketean. Bere idazlanetan, generoarekiko azterketa patriarkala eta merkatu-ekonomiaren justifikazioa batera landu eta elkarri indartu zituen (Forget, 1997: 95). Bere liburu batean (*Olbie*) gizarte ideal batean emakumeen zeregin sozialaz aritu zen, azterketa hori bere analisi ekonomikoan kokatuz. Forget-en iritziz, Say-k erakutsi zuen emakumeekiko jarrera -gizartean izan behar zuten kokapena- eragin handia izan zuen bere garaian. John Stuart Mill-ek ere onartu zuen Say-ren idazkiekiko zor intelektuala zuela (JSMill, 1923:446), eta Say-ren ideiak Mill eta Ricardo-ren bidez, Ingalaterran zabaldu ziren.

Say-ren garaian, Frantziako Iraultza bitartean eta hurrengo hamarkadan (Bonaparte boterean kokatu arte, 1799an), emakume askok altxatu zuten beren ahotsa emakumeen eskubideak aldarrikatuz, eta Olympe de Gouges-k, 1789ko *Declaration of the rights of man* argitaratu ondoren, a *Declaration of the rights of women* argitaratu zuen.

Horren ostean, 1800n Say-k *Olbie* idazlana (Zoriontasuna, grekotik hartuta) argitaratu zuen. Bertan iraultza bat izan ondoren, nazio baten etorkizun idilikoa deskribatzen zuen. Say-ren analisisian familia izango da ekonomia politikoaren funtsezko oinarria, gizarte-ordena mantzentzeko erantzule behinena. Familiaren baitan pertsonen iraupenerako baldintzak eta bertute moralak ezartzen dira. Bertute moral horren gainean oinarritu egin behar da merkatu ekonomia eta gizarte zibila (Forget, 1997: 96).

Say-k argudiatzen du familiak bi helburu nagusi dituela: bere kide guztien elikatzea eta bizirik irauteko bitartekoak eskaintzea eta bertute zibikoen eskola izatea (Forget, 1997: 101). “Sexuen arteko lanaren zatiketa “naturala” ekonomikoki onuragarria da; emakumeak ez badaude beharturik etxetik kanpo lan egiten txiro direlako, beren iraupenerako bitartekoak eskuratuko dituzte beren etxeko lanaren truke, eta lan hori famili osorako onuragarria da, langileen klasean baita”.

Say-k etxeko ardura lan natural eta baliotsua zela uste zuen arren, onartzen zuen emakume askorentzat soldata baten truke lan egitea sahiestezina zela. *Olbie* liburuaren kezka nagusia enplegu guneetan sexuen arteko nahasketa ekiditea zen. Hortaz, zenbait lanbide (jostea, ilepaindegietan edota janaria prestatzea) emakumeentzako soilik izan behar zutela argudiatzen zuen, eta gainerako lanbideetan

sartzea debekaturik izan behar zuten. Horrek esan nahi du, azken finean, berak dioen bezala, “gizonezkoek mundu osoa dute bere industria aurrera eramateko”.

Forget-ek dioenez, Say-ren analisiak erakusten digu komunitate baten eremu pribatu eta publikoan emakume eta gizonen leku egokiaren inguruan erabiltzen ditugun hipotesiak eragin zuzena dutela teoria ekonomikoan. Hortaz, bere ekonomia tratatuan aldarrikatuko du emakumeen soldatak gizonezkoenak baino baxuagoak izan behar direla gizonezkoena familia soldata zelako, eta emakumeena, aldiz, soilik berarentzat (Say, 1803: Book 2, Ch.7, Section 4, 82). Horren ondorioz, emakumeen “soldata naturala” gizonezkoena baino baxuagoa izan behar zela defendatzen zuen, gizonak familiaren ardura zuelako eta aldiz emakumeak ez (Forget, 1997:109).

Amaitzeko Say-ren ekarpenari buruzko laburpen hau, esan behar dugu, bere iritziz, familia (aitaren gidaritzapean) eta enpresak (enpresaburuaren zuzendaritzapean) analisi ekonomikoaren funtsezko unitateak zirela: “Familian, aita da bizi-iraupenerako bitarteko guztiak lortzen dituen; aitaren buruan sortzen dira pentsamendu erabilgarri guztiak; berak ekartzen du kapitala; bera da lan egiten duena eta bere seme-alaben lana zuzentzeaz gain, hazten dituen, eta beren bilakaera gainbegiratzeko duena” (Cours Complet d’économie politique pratique.1968:561; Forget-ek, 1997an aipatua). Izugarria dirudien arren, zenbait teoritan eragina du gaur egun ere!

### **John Stuart Mill eta Harriet Taylor**

John Stuart Mill (1806-1873) izan zen klasikoen tradizio hori apurtu zuena bere feminismo eta liberalismo aurrerakoiarekin, behin-behineko apurketa izan bazen ere. Bera izan zen lehena teoria ekonomikoaren testu batean, emakumeek egindako jarduera ekonomikoak eta gizartean aurre egin behar zuten baldintza zapaltzaileak sartu zituen.

JS Mill-ek, A.Smith-ek bezala, filosofiaz eta teoria politikoaz ere idatzi zuen. Idazle honen garrantzia bere garaiko feministen joerekin bat etortzea izan zen. Bere jarrera feminista bere idazki ekonomikoetan agertuko da, eta bereziki *The subjection of Women* liburuan azaldu zuen (1869). Bertan etxeko lanak ere agertuko dira emakumeen enplegu aukerak mugatzen dituen ingurune instituzional eta legalaren barruan (Jefferson eta King, 2001: 72)

JS Mill-ek bere garaian eragin politikoa izan bazuen ere, emakumeen egoera ekonomikoari buruzko azterketak eta harreman ekonomiko patriarkalekiko erakutsi zituen jarrera eta iritzia guztiz bazterturik geratu ziren hurrengo ekonomisten partetik. Beraz, salbuespen bat izan da ekonomista nagusien artean.

Bere pentsaeran Harriet Taylor-ek (1807-1858) izandako eragina nabarmena izan zen. Taylorrek patriarkatuaren ondorio ekonomikoaz zuen ulermena Mill-ena baino

sakonagoa izan zen. Bi autore hauek bizi izan ziren garaian kapitalismoaren hutsune nabarmenak erakusten zituen, ez baitzen gai izaten, liberalismo politikoarekin batera, gizarte harmonikoago eta zuzenagorik sortzeko.

Garai horretan, pentsalari sozial eta politikoez bi jarrera nagusi defenditzen zituzten. Alde batetik, bazeuden sistema kapitalistaren aldeko jarrera amorratuak plazaratzen zituztenak eta bere alde patriarkala eta despotarekin bat egiten zutenak, eta bestalde, idealistak eta gizartearen erreforma praktikoen aldekoak zeuden (adb. sozialistak eta feministak). Mill eta Taylor tartean kokatu ziren, eta kapitalismoaren erreformaren aldeko jarrerarekin batera pentsaera feminista, sozialista eta ekologistaren zenbait idealekin bat etorri ziren.

JS Mill, Smith eta bere jarraitzaileak ez bezala, gizarte kapitalista liberalak zituen egituraz, eta instituzio patriarkalaren ondorioz ematen ziren kontraesanaz jabetu zen. Bere ustez, instituzio patriarkalak ordena feudal zahar baten hondarrak ziren. Hala ere, ez zuen arazoa baztertu eta emakumeak ahaztu, baizik eta berdintasunaren aldeko erreformak aldarrikatu zituen, kapitalismo eta gizarte liberala berreskuratzeko edo salbatzeko asmoz. Hau da bere gai nagusia *The subjection of women* saiakeran: “Bi sexuen arteko gizarte harremanak arautzen dituen printzipioa –sexu baten bestearekiko mendekotasun legala- txarra da berez, eta gaur egun gizahobekuntzarako oztopo nagusietariko bat. Berdintasun perfektuaren printzipioa aurrekoa ordezkatu behar zuen, alde baten botere edo pribilegiarik onartu gabe, edo bestearen elbarritasun edo ezintasunik gabe”. Bere *Principles* lanean ere ideia bera azaltzen du.

Harriet Taylor-ek Stuart Mill-en pentsamoldea eta idazlanetan eragin sakona izango du, eta Mill-ek horrela onartu zuen bere “Autobiografian” eta gorago aipaturiko liburuaren sarreran. Ekonomista klasiko eta filosofo liberalen artean, Mill ideia feministak dituen bakarra izango da. Horrek ukitu berezia eman zion bere ideia erreformatzaileei, eta garaiko emakume feministen mugimenduaren aliatua bihurtu zuen.. *The Principles* izango da lehen ekonomia politikoari buruzko testua emakumeengan eragina duten gai ekonomikoak jorratzen dituen eta emakumeak eragile ekonomiko autonomoak kontsideratzen dituen. Pujol-en iritziz *Principles* liburua bion artean idatzi zuten (Pujol, 1992: 24).

Mill eta Taylor-en iritziz, emakumeek eta gizonek eskubide berdinak eduki behar zituzten esparru guztietan, jabetza eskubideak barne (bai ondareena bai herentziarena). Emakumeak gizonekiko independenteak izan behar ziren bai arlo ekonomikoan zein moralean; pertsona nagusiak eta autonomoak kontsideratuak izan behar ziren; enpleguan oztoporik gabeko sarbidea izan behar zuten eta erabakitzeko aske izan behar ziren. Emakumeen lana murrizten zuten garaiko legeen kontra azaldu

ziren eta emakumeen autonomia ekonomikoa aldarrikatu.

Emakumeak “babestu” nahi zutenen jarrera paternalistak salatu zituzten, emakumeak umeak ez zirelako, nagusiak baizik. Proposatzen zituzten irtenbideen artean, “industri lanbideak bi sexuei libreki irekitzea eta emakumeei mugarik gabeko aukerak ematea” azpimarra ditzakegu.

Beren garaian, feministen artean eztabaidagai ziren arazoek artean, emakumeen soldata baxuagoen arrazoi nagusiak zeuden. Autore hauek egindako azterketan hiru ataletan banatzen zituzten arrazoi horiek eta haien bidez ikus dezakegu emakumeek pairatzen zuten mendekotasun egoeraren zenbait arrazoi:

- Aurreiritzietan oinarritutako ohiturak zirela eta, gizartean emakume gehienak gizonetzko “eranskin bat” bezala kontsideraturik zeuden. Egoera horretan mendekotasuna ere garrantzitsua zen.
- Emakumeentzako enplegu aukerak oso mugaturik zeuden: oso lanbide gutxi zituzten aukeratzeko, eta beraz, lan eskaintza handiegia zen. Hor ere ohiturak eta legeak eragina zuten eta horregatik gutxiago kobratzen zuten. Gizonek ospe handiko lanbideak monopolizatzen zituzten.
- Gizonezkoen kasuan, “familia soldatak” zeuden bitartean, emakumeen kasuan “bizi-iraupeneko” soldatak. Emakumeen soldata ekarpen gehigarri bat zen familian, ez diru-sarrerara nagusia, eta horren arrazoi nagusiak ohiturak ziren.

Mill eta Taylor-ek populazioaren hazkundearen kontrola defendatzen zuten, emakumeen onurako izango zelakoan. Elizak eta gizartean zabaldurik zegoen ideologia atzerakoiak bultzatzen zituzten famili handiak gaitzesten zituzten, emakumeen emantzipazioak ugalkortasuna jaitsiko zuela defendatuz.

Ekoizkortasunari dagokionez, Mill-ek eta Taylor-ek ez zuten uste gizonetzkoak emakumeak baino produktiboagoak zirenik. Alderantziz, emakumeak, lanaren zatiketa zela eta, ohitura handiagoa zuen xehetasunak lantzen eta abilezia gehiago garatzen zituen. Emakumeen abilezia hauek ez zituen naturak ematen, praktika baizik. Aldi berean, salatzen zuten noraino emakumeen ideiak eta esperientziak ez ziren kontuan hartzen, gizartearen iritzi nagusiak sortarazteko garaian.

Mill-en iritziak, emakumeak berdintasuna lor dezake enplegu baterako aukera lortzen badu, eta ezkontza berdintasun-kontratua bihurtzen bada. Dena den, lehenesten duena enplegurako aukera da, ez edukitzea, ezkontza eta enplegua bateraezinak direlako bere iritziak. Ezkondu ostean, gizonak dirua irabazi behar du eta emakumeak gastuak antolatu eta etxea kudeatu. Emakume ezkonduak, enplegu bat hartuko balu, lanaldi bikoitza egin beharko zituen eta etxeko lanak txarrago egingo zituen, aukera horren kontra azaltzen da. Mill-ek ez ditu alternatibarik bilatzen sexuen arteko lan zatiketa horri. Litekeena da, Pujol-en iritziak (1992:36) Mill-ek sexuen

arteko eginkizuni buruzko ikuspegi tradizionala izatea, eta horregatik ez zuen kontuan hartu emakumeak ez bazuen merkatuan lanik egiten soldata baten truke eta, horrela finantza autonomia lortu, bere mendekotasuna jarraituko zuela. Berak proposaturiko aldaketak, beraz, azalezkoak izango dira autore feminista batzuen iritziz.

Harriet Taylor-en proposamenak, aldiz, askoz aurrerakoiagoak dira. Berak aldarrikatzen du ezkonduko emakume batek diru-sarrera propioak lortu behar dituela berdintasuna lortu nahi badu (1970:105). Etxeko gizonezkoen tiraniaren kontrako neurria ere izanez.

Dena den, Smith-ek egin zuen bezala, lan erreproduktiboa ez-produktibotzat hartu zuten bi autore hauek. Lan batek produktiboa izateko bi baldintza bete behar zituelakoan:

1. Lanaren bidez aberastasun materiala sortu behar zen
2. Lanaren helburua ekoizpena izan behar zen edo produkzio horrek sortu behar zituen sarrerak edo etekinak.

Azken finean, Mill-en baloreak, bai emakumeei bai familiari buruzkoak, Smith eta XVIII-XIX mendetako filosofo politiko gehienen antzekoak dira. Nahiz eta erreforma garrantzitsu batzuk proposatu -patriarkatuaren instituzio nagusien (ezkontza, familia) eraldaketa eta kapitalismoaren jabetza pribatua eta herentzia sistema erreformatzea, besteak beste-, bere ustez, kapitalismoa gai izan zitekeen sorturiko anomalia hauek konpontzeko. Kontuan hartu behar dugu bere ustez familia patriarkala, aurreko sistemaren hondakina izanik, hil zorian zegoela. Beraz, ez zuen kontuan hartu kapitalismoarekin batera zetozen disparekotasunak eta bidegabekeriak (botereharremanetan oinarritzen zirenak). Aldi berean, ez zuen sistema patriarkala eta kapitalistaren arteko loturak aztertu edo ikusi. Marx-ek esango du Mill saiatu zela adiskidetzen adiskidetu ezinezkoa zena.

Mill eta Taylor-en garaian Britainia Handian lehen jarduera feministak agertu ziren. Mugimendu feminista honen kezka nagusien artean emakumeen botoeskubidea, eskubide legalak, eta ezkontza instituzioaren barruan emakumeen statusa zeuden. Ondoren, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko soldaten disparekotasunak eta emakumeen kokapena langileen artean kezka garrantzitsuak bihurtuko dira, emakumeen independentzia ekonomikoaren sarbidean funtsezko elementuak baitziren. Michelle Pujol-en iritziz, lehentasunen sailkapen honek, lehen feminismoaren klase- natura erakusten du, eta hemen kokatu behar dugu, beste idazleen artean, pentsalari feminista adierazgarria den Barbara Bodichon-en ekarpena.

**Barbara Leigh Smith Bodichon (1827-1891)**

Britainia Handiko lehen jarduera feministetan zuzenean inplikaturik egon zen.

Mill eta Taylorren garaikidea izan zen, eta emakumeen lanari buruzko lehen idazlan feminista osatua idatzi zuen.

JS Mill-en *Principles* irakurri zuenean kritikoki erantzun zion esanez, ez zela gehiegi bustitzen emakumeei gehien kezkatzen zitzaaien gaietan. Halaber, ezarritako lege bidegabeen kontra ez zuela gauza handirik esaten. Honen ondorioz, 1854an, liburu bat argitaratu du: *A brief summary, in plain language, of the most important laws concerning women*. Bertan emakumeen eskubideen falta, bereziki, jabetza eskubideen esparruan, ezkontza legeak zirela- eta, salatu zituen. 1857an beste idazlan bat argitaratu zuen: *Women and work*.

Pujol-ek egindako Bodichon-en emakumeen egoeraren azterketa eta proposamenen laburpen interesgarri horretatik abiatuta, Bodichon-ek egindako egoeraren diagnostikoa eta aldarrikapen nagusiak horrela laburbil daitezke:

- ☹ Independentzia ekonomikoa lortzeko, enplegua funtsezkoa zen
  - ☹ Enplegua ez zen ez-femeninoa
  - ☹ Emakumeak lan merkatuaren partehartzaile zirela onartu behar zen, bertan parte hartzen ari zirelako, nahiz eta ideologia nagusiak ukatu.
  - ☹ Emakumeen eta gizonezkoen lan egiteko beharra berdina zen.
  - ☹ Emakumeen prestakuntza eta abilezia eskasa zela eta, soldata baxuak eskuratzen zituzten.
  - ☹ Lanpostu gutxirako aukera. Beraz, haien aukerak oso mugatuta zeuden.
  - ☹ Guzti horrek independentzia ekonomikoa lortzeko emakumeek zituzten aukerak erabat zailtzen zituen
  - ☹ Gizonezkoek hobe ordainduriko enpleguak monopolizatzen zituzten eta enplegu horiek eskuratzeko prestakuntza ere kontrolatzen zuten.
  - ☹ Emakumeek, aurrerakuntza teknologikoak zirela eta, tradizionalki izandako zenbait lanbide galtzeko zorian zeuden.
  - ☹ Emakumeen eskubidea, industria eta lanbide ezberdinetan enplegua lortzeko eta prestakuntza zein soldata duinak eskuratzeko.
- Gizartean ager zitekeen erresistentziaren aurrean, hurrengo adierazi zuen:
- ☹ Enplegua eta emakumeen betebeharrak ez zirela bateraezinak (ez zuen hori kolokan jarri)
  - ☹ Ezkontza eta enplegua ez zirela bateraezinak
  - ☹ Enplegua edertasunaren elementu bat zela
  - ☹ Ez ezkontzeko eskubidea eta prestakuntza izan behar zituela emakumeak

Patriarkatuaren aldekoen kritika zorrotzak jaso arren, aktiboki lan egin zuen emakumeen prestakuntza maila igotzeko eta emakumeen lan- eta gizarte-eskubideak

lortzeko.

### **2.3. Teoria marxistaren hutsuneak**

#### **Karl Marx (1818-1883) eta Friedrich Engels (1820-1895):**

Autore klasikoen artean, bi hauek izango dira, kapitalismoari kritika zorrotzena egin ziotenak. Kapitalismoaren azterketa sakona egin zuten, beren asmoa kapitalismoa gainditzea izanik.

Ikuspuntu marxistatik, historia egoera ekonomiko aldakorretan oinarritzen da. Zirkunstantzia material horiek oinarri ekonomikoa osatuko dute, hau da, produkzio modua. Oinarri ekonomiko horren gainean gizarte-gainegitura kokatzen da, eta hor egongo dira instituzio politiko eta kulturalak, Estatua eta Familia barne. Gainegituraren moduak oinarrizko harreman ekonomikoen defentsa, legitimazio eta erreproduziorako tresnak dira, eta, halaber, ekonomi-oinarriaren garapen-mailaren arabera zehaztuko dira. Hori dela eta, teoria marxista “determinismo ekonomikoarekin” erlazionatu ohi da (Jennings, 1992: 120).

Kapitalismoaren azterketan, Marx-ek eta Engels-ek ondasunen ekoizpenprozesu osoa kontuan hartu zuten. Prozesu horren baitan sortzen zen esplotazioaaztertzerakoan, Marx-ek bere botere-teoria garatu zuen. Boterea eta boterearen gabezia pertsona baten klase egoeratik eratortzen zen. Hortaz, zapalketa kapitalismoaren antolakuntzaren ondorioa izango da eta boterearen eta kontrolaren gabezia oinarritzen da. Lan produktiboaren bidez, gizarte kapitalistak langilea zapaltzen du, azken honek burgesiarentzat gainbalioa sortzen duelarik. Gainbalio horrek irabazien baitan dagoen soberakin- lanetik, hau da, langilearen lan- ordu errealak eta langilearentzat beharrezkoa den lanorduen arteko ezberdintasunetik eratortzen da (Einsenstein, 1980: 19).

Marx-en iritziz, “ekoizpen kapitalistaren ikuspuntutik, lan produktiboa soldatapeko lana da. Azken honek kapitalaren zati aldakorraren truke (soldatan gastaturiko kapitalaren zatia, hain zuzen), ez du soilik kapital zati hori erreproduzitzen (edo bere lan gaitasunaren balioa), baizik eta, horrez gain, kapitalistarentzat gainbalioa sortzen du... Kapital sortzen duen soldatapeko lana bakarrik da produktiboa” (Marx: Gainbalioari buruzko teoriak, I, 137).

Marx-ek, beraz, ondasun produkzioari eman zion garrantzia eta lan produktiboa zein klasea horrekin lotu zituen, autore feministei arazo asko sortuz. Alde batetik, emakumeen jardueren multzo handi bat produkzio mota horretatik kanpo zegoelako, eta bestetik, klasea zelako gizarte disparekotasunak sortzen zituen modu nagusia eta hori ondasun-produkzio kapitalistarekin lotzen zuelako. Beraz, emakumeen etxeko lanak eta ardurak (garai horretan nagusiak zirenak) ez ziren ekonomikoak ezta

sozialak ere, sozialki “ondoriorik gabekoak” (inconsequential) bezala ikusirik zeudelako. Aldi berean, bere klase estatusa zalantzazkoa zen. Hortaz, generoaren disperekotasunak gutxiesten zituen. Jennings-ek azalduko duenez, feministen kezka nagusien artean, emakumeen ikusgarritasuna berrezartzea eta emakumeen zapalkuntzaren azterketa badaude ere, marxismo tradizionalatik kanpo dauden kezkak dira. Azken finean, azken honen ardura nagusia gizonezkoen jarduerak izan dira (Jennings, 1992: 120).

Honen aurrean, autore sozialista feminista den Zillah R. Eisensteinek (1980:20) esango du: “Emakumeen kontzientzia iraultzailerako potentziala baldintzatzen duten gizarte- harremanak Marx-ek uste zuena baino askoz konplexuagoak dira. Marx-ek ez zuen inoiz zalantzan jarri gizartearen egituraketa sexual- hierarkikoa. Ez zen konturatu harreman multzo horrek emakumeentzako espezie-bizitza ezinezkoa bihurtzen zuela, eta beraz, bere egikaritzeak ezin izango zuela lortu klase-sistema deseuztatzean soilik”.

Familia burgesari buruz Marx-ek duen iritzia Alderdi Komunistaren Agirian (AKA) azalduko du. Bertan, familia- harremana diru-harreman huts bat izatera mugatu dela dio. “Zer moduzko oinarrien gainean dago jarrita gaurko familia burgesa? Kapitalaren etekin pribatuaren gainean. Familia, hitzaren esangura oso osoan, burgesiarentzat besterik ez dago”.....Familiari eta heziketari buruzko burges adierazpenak, hots, haurra bere gurasoekin batzen duten lotura goxoei buruzkoak, industria handiak proletargoarentzat lotura familiar guztia birrintzen duen, eta haurrak merkatalgorako artikulu sinpleak, halegia, lanerako tresna huts batzuk bihurtzen dituen neurrian, adierazpenok, gero eta nazkagarriagoak dira..... Burgesarentzat, bere emaztea produkzio-tresna bat besterik ez da”. (AKA, 1872, euskarazko bertsioa, 1971an: 83). Ezkontza burgesa prostituzioarekin parekatzen da (AKA, 1971: 84). Eta gehitzen dute “gauza nabaria da, oraingo produkzio-harremanen abolitzeak, ..hau da, prostituzio ofiziala eta ez ofiziala, batera desagertuko litzatekeela (AKA, 1971: 85). Jabego pribatuak eta jabetzak oro har gizon eta emakumearen arteko harremanak baldintzatzen dituzte. “Emakumea negoziatua da” esango du Marxek “La cuestion judia” liburuan.

Beraz, Marx-en iritziz, familia burgesa, gizarte kapitalistaren tresna bat besterik ez da, barne-dimentsiorik gabekoa. Emakumeen zapalkuntza, klase-gizarte batean, bere esplotazioan datza, ezkontza eta familia burgesaren bidez. Emakumea lanaren zatiketa klasista kaltegarriaren sistemaren biktima bat gehiago besterik ez da, proletargoarekiko ezberdintasunik ez duena. Marxek ez zion ez lanaren sexubanaketari ezta beste gizarte-roleri ere esistentzia propioirik eman (Eisenstein, 1980:



21).

Emakume feminista sozialistek, aldiz, Einsenstein-ek bezala, adierazi dutenez, kapitalismoaren suntsiketak, eta horren ondorioz, zapalkuntza kapitalistaren bukaerak ez du, berez, ziurtatuko emakumeentzako espezieren araberako esistentzia, hau da, lan sortzaile, gizarte-komunita eta kontzientzia kritikoa garatu ahal izango dutenik. Juliet Mitchell-en iritzia ere ildo horretatik doa: “ekonomia kapitalistaren suntsipenak eta horrek dakarren erronka politikoak ez dute esan nahi, berez, ideologia patriarkalaren eraldaketa emango denik”.

Ideologia alemana liburuan, Marxek eta Engelsek aintzinako gizarte aurrekapitalistetan lanaren zatiketa aztertzen dute, familia oinarria hartuz. Lehenengo lanaren zatiketa, familian harreman sexualaren bidez (koito) sortzen den zatiketa “naturala” da. Ugaltze- ekintzak lanaren zatiketa sortzen du eta bere bidez, jabetza sortzen da lehen aldiz familia barruan. Marx eta Engels-entzat, hori da unea, emaztea eta seme-alabak senarraren esklaboak bihurtzen hasten direnean: “Esklabotza, egiazki, familian sortzen da, jabetzaren lehenengo era da. Beste aldetik, ekonomista modernoek definizioari, perfektuki, egokitzen zaio, zeinaren arabera, besteen lan indarra erabiltzeko eskubidea da. Horrez gain, lanaren zatiketa eta jabego pribatua termino berdin- berdinak dira”.

Ez dute berriz ere zehatz-mehatz aztertuko zergatik erreprodukzioak lanaren zatiketaren lehen iturria den. Einsenstein-en arabera, garai historiko goiztiar honetan, Marx eta Engels-ek familia gizartearen eta bertan sortzen zen lan zatiketaren egituratzaile gisa ikusi zuten: “Horrela, lanaren zatiketa garatzen da, hasiera batean, ekintza sexualean izandako lan banaketa gainditzen ez zuena, eta aurrerago, era “naturalean” sartutako lan zatiketa, dohain fisikoak (adibidez, gorputz-indarra), beharrak, ustegabeko kointzidentziak, etabar.”. (Ideología alemana, 32).

Dena den, Marx-ek emakumei buruz oso gutxi idatzi zuen, eta ikuspuntu marxista klasikoa emakume eta familiaren inguruan Engels-ek egindako lanetatik hartu ohi da, noiz behinka Marxek egindako komentario urri batzuk erreferentziazat hartuz. Testuinguru honetan Engels-ek “Familia, jabego pribatua eta estatuaren jatorria” idatzi baino bost urte lehenago, August Bebel sozialistak “Woman under socialismo” (1879) idatzi zuen. Bere iritziz, ez dago ezer “natural” sexuen araberako lan zatiketari eta, beraz, etxeko lana atzerakoia eta denbora galera zenez, desagertu behar zen.

Kapitalismoaren garapenaren bitartez, emakumeen askatasunerako baldintza materialak eratzen ari ziren, eta sozialismo lortzerakoan emakumeak askatuko ziren, etxeko lana guztiz desagertuz.

Engels ados egongo da Bebel-ekin puntu horretan, eta bere liburuan “Familia, jabego pribatua eta estatuaren jatorria” saiatuko da azterketa historikoa garatzen:

“Historian izandako lehendabiziko lan-zatiketa gizon eta emakumearen artekoa izan zen, seme-alabak izatean. Lehenengo klase- aurkakotasuna ezkontza monogamoan sortzen den gizon eta emakumearen arteko aurkakotasuna da, eta lehenengo klasezapalketa gizonezkoak emakumeengan izandakoa izan zen.” Engels-ek, hala ere, ez du inoiz azalduko zertan oinarritu zen horrelako azalpenik ematerakoan (Einsenstein, 1980:24). Engelsek jarraitzen du esanez: “Familia barruan gizonak burgesia ordezkutzen du eta emakumeak proletargoa”.

Ondoren, familia modu historio-ekonomikoen arabera definituko du; baina familiak ez du, berez, ekonomian ezta gizartearen definizioan parte aktiborik hartzen, eta harreman ekonomikoaz hitz egiten duenean ez du berriz familia aipatuko lanaren zatiketaren sortzaile gisa. Horrela, Engels-ek bere hasierako azterketa ahaztu zuen eta Marx-ek bezala kapitalismoaren deusestatzearekin batera desagertuko delakoan dago, aztertu gabe nola familia berak ekonomia antolaketa babesten duen.

Hortaz, emakumearen benetako berdintasuna kapitalak eragindako zapalkuntzaren bukaerarekin etorriko da eta etxeko lanak industria publikora pasako dira. Gehiagorik ez du zehazten. Eta badirudi industria publikora transferitu ezin daitekeen etxeko lanaren zatia emakumeen ardura dela, Engels-en iritiz, ez baitu kontuan hartzen garai horretan emakumeen partehartzeak industrian ez zuela emakumeak egiten zituen etxeko lanetatik askatzen, eta “lan bikoitza” egiten zuela (Vogel 1996). Dena den, Engels-ek, Bebel bezala, uste zuen langile-klasearen familia apurtzen ari zela, kapitalismoaren eraginaren ondorioz, eta aldi berean, etxeko lanak gero eta sozializatuagoak zirela gizarte kapitalistan. Ondoren, sozialismoarekin batera ez zen gehiagorik arazoek sortzaile izango (Jefferson eta King, 2001: 84).

Engels-ek dio: “Teoria materialistaren arabera, historiaren alderdi erabakigarria, azken finean, berehalako bizitzaren produkzio eta erreprodukzioa da. Baina, produkzio eta erreprodukzio horiek bi motatakoak dira. Alde batetik, esistentzia- bitartekoen produkzioa, elikagaiak, jantziak, etxebizitza eta hori guztia ekoizteko beharrezkoak diren tresna guztiak; beste aldetik, gizon berberaren produkzioa, hots, espeziearen jarraipena. Gizonak, garai batean edo herrialde jakin batean, bizi diren gizarte-ordena, produkzio-espezieek baldintzatzen dute: lanaren garapen-mailak, alde batetik, eta familiarenak, bestetik (Familiaren jatorria, 204).

Hala ere, gizarte kapitalista barruko familia aztertzen duenean, hasierako pertzepzio hori galduko du. Hor gainegituraren zati bat bezala soilik kontsideratzen baitu, klase-gizartea bere osotasunean islatzen duen irudian. Hor kokatuz, etxeko lanak gizonezkoek egiten duten historia-esparrutik at geratzen da, eta hortaz, emakumeek egiten dituzten jarduerak kontuak hartzen ez badira ere, ez du teoria sozialak azalpen gaitasunik galduko. Beraz, badirudi beren lanak ez direla

funtsezkoak, oso zabaldua zegoen ikuspuntu kultural hori indartuz, eta emakumeen zeregin historikoa pasiboa dela islatuz (Jennings, 1992: 120).

Einsenstein-en iritziz, adibidez, emakumeen bizitza, gizarte eta familiaren arteko elkarrenganako harremanek baldintzatzen dute, produkzioa eta erreprodukzioa. Hortaz, emakumeen zapalkuntzaren ikerketak, sexu- baldintzekin batera, harreman ekonomiko materialak ere kontuan hartu behar ditu, zapalkuntza bere osotasunean ulertu nahi badugu, eta ez soilik opresioa ekonomikoa. Ekonomista sozialistafeministek,

XX mendearen bukaeran, aldarrikatuko dute metodo materialista historikoa zabaldu behar dela emakumeen bizipenei, hau da, lanaren sexu zatiketa eta gizartearekin duen harremana kontuan hartuz, ekoizle eta erreproduktorea gisa, harreman honetako oinarri ideologikoa sartuz (botere kapitalista eta gizonezkoen arteko botere-itunak lortzen duten errealitatearen distortsioa, kasu honetan). Orduan bakarrik ulertuko da emakumeen esistentzia bere osotasunean eta konplexutasunean eta espeziearen bizitzarako eskubidea izango du.

#### **2.4. Eskola neoklasikoaren hutsuneak**

Yet if the neoclassical economists end up with no clothes they can still maintain their views as dominant, speaking from the side of the powerful in a capitalist and patriarchal society

#### **Michelle A. Pujol (1992): 117**

XIX mendearen bukaeratik hona teoria neoklasikoa izan da ekonomi teoria nagusia, mendebaldean. Hortaz, esan daiteke, teoria neoklasikoa, teoria ortodoxo nagusizat hartua izan dela. Robbins-ek egindako definizio ospetsuak islatzen ditu bere kezka nagusiak: ekonomiak helburu ezberdin eta lehiakorren artean egin behar den baliabide urrien esleipenaren ikerketa da. Beste eskoletako ordezkariak bere hasierako hipotesiengatik definitu dute eskola hori: individualismo metodologikoa, arrazionalitate unibertsala, homo oeconomicus eta oreka kontzeptuaz gain, norbanakoen jokaera-multzoa merkatuen bitartekaritza soilaren bidez bateragarria dela defendatzen du. Dena den, teoria honen sustrai nagusiak aztertzeko, Alfred Marshall-ek izandako ikuspuntua laburbilduko dugu, bera izan baitzen teoria horren zutabe nagusiak eratu zituen.

#### **Alfred Marshall (1842-1924)-en *Principles of Economics***

Marshall ekonomia teoria neoklasikoaren fundatzailearen bat izan zen eta ongizate ekonomiaren bultzatzaile nagusienetakoa, ondoren Pigouk garatu zuena. Marshall-en iritziz, ekonomia zientzia positiboa zen, ez normatiboa. Zientzia honen zeregina zehaztu nahian, bere ustez ekonomiari neurgarriak ziren "gizakien

jarduerak” interesatzen zitzaizkion. Neurtzeko gaitasun hori ekonomi-eragiketetan eta erabaki-prozesuetan dirua erabiltzen zelako agertzen zen. Horrela, merkatutik kanpo zeuden eragiketak ezin ziren argi neurtu eta beraz, ekonomiaren esparrutik at geratu behar ziren.

Marshall-en eredu marjinalistaren oinarrian irizpide batzuk zeuden: norbanakoaren jokaera ekonomikoa arrazionala da; jokaera horien helburua “ongizatearen eskakizun materialak lortzea eta erabiltzea” zen. Bere ustez, ongizate optimoa lortzeko norbanakoaren kalkulo marjinalak beharrezkoak ziren. Bere ereduan, sarrerak eta soldatak, produkzio-faktore bakoitzaren produktu marjinarak zehazten ditu. Merkatu-mekanismoak etekin eta ekonomi ongizatearen estatu optimoa ziurtatzen du.

Dena den, Marshall bere eredutik urruntzen da gutxienez bi egoeratan:

- Kontsumo-unitatea zehazteko orduan, ongizatearekiko erabakiak edo sarreramailak neurtzeko erabiltzen duen unitatea familia da, ez gizabanakoa. Norbanakoaren pizgarri ekonomiko berekoiak famili unitate barruan desagertzen dira, bereziki belaunaldi-arteko transferentzien kasuan.

- *Laissez-faire* tradizioarekin apurtzen du, baita Estatuaren eskuhartzea onartzen duenean ere (legeen bidez) eta Estatuaren partehartzea ekonomian sakonagoa izan behar duela (hezkuntza, familia-soldata,..) aldarrikatzen duenean. Dibergentzia hauek batasuna aurkitzen dute Marshall-ek emakumeen tratamendua ekonomia kapitalistan zehazten duenean. Marshall-ek “giza-kapitalaren” teoria garatzen du *Principles* testuaren IV Liburuan. Bere asmoa langilearen produktibitate maila igoarazteko aholkua ematea da. Bere proposamenaren funtsezko elementua hezkuntza izango da. Hortaz, gizon-langileak eta bere umeak bizi diren ingurunea hobetzeko, eta osasun eta abilezia gehiago sortzeko, langile-klasearen emakumeak beharrezkoak dira “benetako etxea” sortzeko. Marshall ezkonduko emakumeen enpleguaren kontra agertuko da eta gizon-langileei ordaindu behar zaion “familia soldata” aldarrikatuko du.

Berak langile-klaseari balore biktoriano burgesak aplikatzen dizkio, sistema batean non emakumeak, ezer irabazi gabe, bere denbora eman behar du gizonlangileen giza-kapitalaren inbertsioan partehartzeko.

Marshall-en iritziz, “zentzu batean bakarrik daude bi produkzio-eragileak, natura eta gizona. Kapitala eta erakundeak gizonezkoen lanaren emaitzak dira, naturak lagunduta”. Produkzio-faktoreen artean, lanak dauka goi mailako propietateak, berak kapitala sortzen baitu. Beraz, ikerketa berezia merezi du: “Gizakion hazkundera, zenbakitan, osasunean eta indarrean, ezagueran, abilezian, eta izaeraren

aberastasunean da gure ikasketaren helburua. Guk ezin dugu ekidin gizonaren agentzia zuzena produkzioan kontuan hartzea, eta ekoizle gisa bere eraginkortasuna gobernatzen dituzten baldintzak”.

Herrialde baten aktiborik inportanteena lan indarra da. Beraz, hura mantendu eta handitzeko inbertsioa egin behar da. Balio gehien duen kapitala giza-izakietan inbertitzen dena da. Halaber, aktibo honek era espezifiko batean moldatu behar da, gizarte industrial baten produkzio beharrei erantzun ahal izateko.

Marshall-en proposamenak esparru honetan zehatzak dira:

a) Pobrezia amaitu behar da, pobreen lan potentziala hobeto erabili ahal izateko.

Badirudi hori dela bere kezka nagusia, lan indarra ahalik eta hoberen erabili ahal izatea. “Lanaren mota bakoitzeko badago guztiz beharrezkoa den kontsumo maila bat; beraz, ez bada maila horretara heltzen lana ezin da modu eraginkorrean egin” (ibid. 529). “Atsedenaldea ezinbestekoa da populazio bizkorraren hazkunderako....gehiegizko lanak...bizitasuna jaisten du ...eraginkortasuna gutxituz.

- “soldaten igoerak, baldintza osasuntsuetan lortzen badira, ia beti hurrengo belaunaldien indarra, bai fisikoa, mentala, zein morala handitzen ditu.

- Aipaturiko helburuak lortzeko gobernuaren eskuhartzea gomendatzen du:

“lantegi arauak, gobernuak ezarri behar dituen gutxienerako soldatak, haien azpitik gizonak ezin baitu lanik egin, eta beste gutxienerako soldatak emakumearen kasuan, horren azpitik emakume batek ezin baitu lanik egin. Aldi berean, txiroen umeen hazkundera estatuak kontrolatu behar du.

b) Langileriaren hezkuntza-maila handitu behar zen langileriaren abileziak eta prestakuntza hobetzeko, langileak “ekoizle eraginkorrak” bihurtzeko. Hezkuntza nazio-inbertsioa da. “Helburu hau lortzeko, diru publikoak aske mugitu behar dira”, “belaunaldi honen behar premiazkoena baita... gazteen aldeko apostua egitea” “eta denboran zehar prozesu metatzailea da”.

c) Dena den, gurasoek erabaki behar dute umeek hezkuntza jaso behar ote duten eta zein motatakoa izan behar den, eta baita finantzabideak ere. Zentzu horretan, gurasoen ohiturak eta jarrera egokiak gizarte barruan eratu behar dira. Merkatuan berekoikeria nagusi bada ere, familian, aldiz, gurasoak prest daude sakrifikatzeko bere seme-alaben hezkuntza bultzatzeko. “Hezkuntza gurasoen eginbeharra da”.

Testuinguru honetan, emakumeei bereziki eskatzen die erantzukizuna; amei aitei baino gehiago eskatzen die umeen onerako sakrifikatzea. Emakumeek enplegua utzi behar dute: “emakumeen enplegua kaltegarria da, benetako etxe bat eraikitzeko duen egin beharra ez betetzen tentatzen baitie”.

Ama baten umeen zainketa, industria modernuak eskatzen duen gizakapitalaren

produkzioaren elementu nagusietarikoa da. Bere ustez, langile- klaseen doilorkeria, ia uniformetasunez, emakumeek egindako lan neketsuaren kantitatearen arabera neur daiteke (instinto samurrak eta ez-berekoiak, eta ez bada gogorturik izan lan ez-femeninoren estresa eta tentsioagatik). Umeen hilkortasun tasak ere soldatapeko ama-langileekin lotzen du. Ez da saiatzen aurreko puntuan esandakoa datuekin frogatzen, ezta beste aldagai batzuk hartzen (soldatak, lanegunak, lanorduak,..) gaian sakontzen. Ildo horretatik, enplegua emakumeen erreprodukzioarako gaitasunaren kontra doa, bereziki lan femeninoa ez bada. Emakumeak, beraz, denbora osoa etxean egon behar du.

Bere lan erreproduktiboa egiteko emakumeak prestakuntza behar du. Hortaz, abilezia eta ezaguera espezifikoa eman behar zaio (osasun arloko zaintzak, elikadura, etxeko ekonomia eta etxeko aurrekontua hobeto kudeatzeko, besteak beste). Nahiz eta Marshall-ek dena neurtu nahi izan zuen, ez zuen sistema bat ere proposatu, gizarte industrialari etxeko andreak egiten dion ekarpenaren balioa balioztatzeke edo aitortzeke, edota emakumeen abilezia horien garapena bultzatzeko. Marshall-en iritziz, birtutea izan behar da ordainketa nahikorik emakumearentzat bere betebeharrak ondo egin dituenen.

Marshall-en ustez, mutileei eman beharreko hezkuntzaren helburua industrialana egiteko prestakuntza eskaintzea zen bitartean, neskeei emandako hezkuntzainbertsioa hauek etxeko lanak eta amaren betebeharrak ondo egitea zuten helburua. 1896an, Marshall-ek esan zuen “gero eta gehiago ondorioztatzen zuela ez zegoela ezer baliagarririk emakumearen adimenetik ateratzeko” (Keynes, 1944: 276).

Baina bere bizitza osoan bere emaztearen lankidetzat, aholkuak eta laguntza izan zituen, bereziki bere idazkien “froga-irakurketa eta indexeak ateratzen”. Keynesen iritziz, Marshall-ek eduki izan ez balu bere emaztea alboan, bere adimen, ulermen eta debozioarekin, bere lanak ez zuen bere osotasunean fruiturik eman (Keynes, 1944: 268).

Emakumeen portaera sozial egokia sorrarazteko, Marshall-ek ematen duen gomendio bakarra moneta-pizgarri negatiboak aplikatzea litzateke. Hau da, emakumeak etxean gera daitezten, enplegu aukerak bilatzetik gogoia hoztu behar zaie, eta helburu hori lortzeko, enpleguaren truke ordaindutako soldatak baxuak izan behar dira. Horregatik, emakumeen gutxieneko soldata gizonezkoena baino baxuagoa izan behar da, emakumeek etxeko betebeharrak utz ez ditzaten.

Marshall-en soldaten teorian “eskariak eta eskaintzak batera soldatetan eragina dute; ....soldatak lanaren produktu garbiaren parekoa izateko joera du, bere

produktibitate marjinalak bere eskari-prezioa agintzen du; bestalde, soldatek langile eraginkorren hazkuntza, zaintza, prestakuntza eta energia sustatzearekin harreman hurbil, nahiz eta zeharka eta konplexua, izateko joera erakusten dute”.

Soldatak ezin du biziraupeneko mailatik behera egon, bestela kostu bat izango da gizartearentzat. Dena den, soldatak biziraupeneko mailatik gora urruntzen badira, industria gizarteak nozituko du. Beraz, soldatak biziraupeneko maila izan behar du.

Marshallen iritziz, sexuen arteko lan zatiketaren oinarritzen den familia nuklearra gizarte kapitalistaren oinarri ekonomiko eta erreproduzio unitaterik eraginkorrena da. Emakumeen ekarpenik onena, gizarte kapitalistan, ama eta etxeko andra bezala jardutea da, eta baita aurrekontu mehe eta eskas batekin betebeharrak asetzeko abiltate handia erakusten dutela onartzen badu ere, ez du jorratzen etxeko jarduera hauek produktibotzat hartu beharko ote diren, ezta saiatu ere emakumeek gizarteari egiten dieten ekarpena baloratzen (moneta-balioa ematen).

Lan produktiboa definitzen duenean, lan horrek “produkzio-bitartekoak eta poztasunaren iturri iraunkorrak ekoizten dituen da” edo lana “beharrezkoa dena ekoizten duena” da. Hau da, beharrezko gauza guztiak beharrei erantzuteko, esistentzia eta eraginkortasuna direla eta.

Victoria garaiko balore burgesak zituen Marshall-ek, nahiz eta bere liburu nagusian, “The principles”-en, hasieran adierazi “ekonomistek ez dutela klase pribilegiatorik defendatu behar”. Hortaz, klase ertaina eta goiko klaseen emakumeentzako egokia zena, bere ustez, egokia izan behar zen emakume langileentzat.

Laburbilduz, Marshall-ek ez ditu emakumeak izaki ekonomiko gisa tratatzen, nahiz eta hauek etxearen kudeaketan aurrekontu mugatu baten administrari izan behar diren.

**Arthur Cecil Pigou**-k jarraituko du Marshallen ikuspuntu bera defenditzen, eta nazio-errenta definitzen duenean kontuan hartzekoak dira “the value of the production of all goods and services that can be brought directly or indirectly into relation with the measuring rod of money”. Berak kontzeptu honetan sartuko du “jendeak diru-sarrerekin eros dezakeen guztia, gehi gizon batek lortzen dituen zerbitzuak bere etxean. Beraz, berak esango duen bezala sukaldari bat bere etxeko jabearekin ezkontzen bada, nazio errenta jaitsiko da. Horren ondorioz, argi geratu zen etxeko lana ekonomiatik guztiz at utzi zutela.

Erantzun gisa, **Charlotte Perkins Gilman**-ek soldatarik gabeko lanen ondorio ekonomikoak aztertu zituen, besteak beste produktibitatearen galera, kanpo-eraginak sortzea, eta etxeko lanen output baloratzeko aukera, bere aukera-kostua kalkulatu.

John Stuart Mill eta Harriet Taylor-rek bezala, Perkins-ek aldarrikatu zuen emakumeei enplegu-aukerak eman behar zitzaizkien, horrela sistemaren eraginkortasuna handituz eta produktibitatea ere gora eramanez, horrela aukera gehiago izango baitzituen merkatutik erositako ondasunekin etxea hornitzeko. Dena den, beste kasutan gertatu zen bezala, ahalegin hauek eragin oso txikia izan zuten akademian eta nahiko bazterturik geratu ziren.

Ondoren, beste ekonomista batzuk nazio-sarrerak estimatzen saiatu dira. XX mendearen hasieran, bereziki Suedian (adibidez, Erik Lindahl, Einar Dahlgren eta Karin Kock), Erresuma Batuan (Colin Clark) eta Estatu Batuetan (bereziki, Wesley Mitchell, eta Simon Kuznets). Horren ondorioz, etxeko lanen izaera produktiboa onartu zuten eta lan hori kontuan ez hartzea hutsune izugarria zela aitortu, hori dela eta estimazioak egiten hasi ziren. Gaur egun, etxeko lanen produkzioaren balioa estimatzeko aurrerapauso handiak eman dira, eta zenbait metodo daude.

### **Neoklasikoak eta “new home economics”**

Nahiz eta Gari Becker-en “A theory of the allocation of time” (1965) artikulua izan teoria neoklasikoan etxeko produkzioa formalki txertatu zuena, bera baino lehen egon ziren beste ekonomilari batzuk lan hori garatzen. Aitzindariak Chicagoko Unibertsitateko Hazel Kyrk (1925- 1957), bere ikaslea izandako Margaret Gilpin Reid (Iowa State College) eta Elizabeth Hoyt (Iowa State College) izan ziren. Ekonomista hauek emakume ekonomista bakarrak ziren haien unibertsitateetan eta irakasten zuten irakasgaia “consumption economics” zen. Garai horretan irakasgai hori ez zen oso erraz txertatzen haien ekonomia sailetan. Ekonomista hauek aldarrikatu zuten etxeko produkzioaren garrantzia gizakion ongizatean, eta bizi-maila neurtzeko jarduera multzo zabal bat barneratu zuten (auto-horniketa barne). Etxeko produkzioan eta kontsumoan denboraren garrantzia azpimarratu zuten, eta sakonki aztertu zuten merkatuan erositako salkien eta etxearen zereginaren -kontsumorako esgindako ondasunen eta zerbitzuak- arteko lotura.

Ekonomista hauek, hala ere, eskola neoklasikoaren partaide zuten haien burua, eta Margaret Reid-ek erkaper handia egin zuen etxeko produkzioaren definizioa landuz (gaur egun ere eragina duena), besteak beste. Hirurak merkatuaren hutsuneen aurrean sektore publikoaren partehartzea aldarrikatzen zuten (kontsumitzaileen heziketak, gobernuaren arauak,..). Haien lana funtsezkoa izan zen hurrengo hamarkadetan kontsumo-ekonomia teoria bizi izan zuen loraldian, nahiz eta haien lana ez zen ia aipaturik izan beraien ideiak garatu zuten ekonomilarien partetik.

Esan dugun bezala, Becker-en lanarekin, eskola neoklasikoak kontuan hartuko du etxeko produkzioaren papera ekonomian, eta 70. hamarkadaren hasieran ikerketa asko egingo dira gai honen inguruan.



70. hamarkadan azterketa formalak zabaldu ziren etxeetan hartutako zenbait erabakiak (umeak izatea, giza-kapitalean inbertitzea, eta denbora esleitzea etxeko jardueratan zein ordaindutako lanetan) ulertzeko. Garai horretan gizarte-aldaketak ematen ari dira eta gero eta ezkonduko emakume gehiago sartzen ari ziren lan merkatuan. Hori dela eta, Susan Himmelweit-en iritziz (1995) soldatapeko eta soldatarik gabeko lanen arteko konparazioak egiten hasi ziren.

80. hamarkadan, Keynesek, 30. hamarkadatik aurrera egindako kritikak eta ekarpenak berriro ere bazterturik geratu ondoren, neoklasikoen printzipioak nagusi bihurtuko dira eta horietan oinarritu da makroekonomia neoklasiko berria. Gaur egun, gero eta kritika gehiago jasotzen ari bada ere, (ikus erregulazio teoria edo eskola postautista, adib.) eta ekonomia ikasleak eta irakasle batzuk zenbait unibertsitatetan bere kontra mobilizatzen hasi badira ere (Cambridge eta Texas-en agiriak, ..), onartu behar da, azalpen ekonomiko gehienen abiapuntua eskola neoklasikoaren jarrera izan dela eta oraingoz badela.

Atal hau amaitzeko, Pujol-ek (1992) eta Woolley-k (1993) egiten duten eskola neoklasikoaren kritika zorrotzetik abiatuta, hurrengo puntuak azpimarratuko ditugu: Ekonomia teoria neoklasikoak bere hipotesiak sinplifikatu eta estereotipoz betetzen ditu emakumeen bizi-moduak, gizarte-harremanak eta motibazio ekonomikoak. Emakumeak, normalean, emazte eta ama bezala ikusten ditu, soldata irabazten duen gizonaren menpe eta familia nuklear baten partaide; familia entitate harmoniko eta adostasunean oinarrituta ikusten du. Neoklasikoek gizarte-harreman horiek iraurarazi nahi dituztenez, logika hori beren eruedetan islatzen da, eta horrela, emakumeen errealitate ekonomikoak islatuko dira era ezegoki batean, karikaturizaturik eta gezurrez osaturiko irudien bidez.

Horrela, emakumeen arazoak eta problematika beste zientzietan sartu dira ekonomian baino lehenago. Emakume ekonomistak diskurtso nagusia bereganatzen beharturik egon dira, Louise Vandelac-ek salatu duen bezala. Subjektu ekonomiko bezala bazterturik, emakumeak eremu honetan kolonizaturik daude, langileriarekin, oro har, eta txiroekin gertatzen den bezala. Honek diziplina legitimatzen du eta "diskurtsoaren neutralitatearen ilusioa mantenduz emakumeak parte hartzen du" (Vandelac, 1986).

Dena den, diskurtso hegemonikoa neoklasikoa izan bada ere, badaude beste ikuspegi alternatiboak gero eta indar gehiago indarra hartzen ari direnak. Horren adibide, instituzionalismo erradikalaren laburpenarekin amaituko dugu atal hau.

### **Instituzionalismo erradikalaren jarrera**

Ann L. Jennings-en iritziz, instituzionalismo erradikala oso kezkatuta dago gizarte-arazoen identifikazio eta hobekuntzarekin. Asmo horrekin, prozesu kulturalen

azterketa historikoa funtsezkoa izango da eskola honen partaideentzat, gizartehobekuntzak lortzeko asmoz estrategia instituzionalistak adieraziz.

Instituzionalistentzat, kultura kontzeptua garrantzitsua da. Haien iritziz, giza-portaera ulertu behar da etengabeko gizarte-prozesuen zein gizarte-esanahien sistema baten partaide gisa, prozesu guzti horiek denbora historikoan aldatzen eta bilakatzen doazela (Jennings, 1992, 117).

William Waller eta Ann L. Jennings-ek uste dute ikuspuntu feministak, bereziki zientziaren filosofiari buruzkoak, eta institutionalismoren jarrera asko oso antzekoak direla, eta beraz, azterketa biak bateragarriak direla. Aldi berean, Jennings-ek egiten duen teoria feminista eta estatuari buruzko azterketan feminismo marxista eta sozialista hartzen ditu abiapuntu eta oinarritzat. Horrek ez du esan nahi teoria horrek dituen hutsuneak ez dituela azpimarratzen, beharrezkoa baita, bere ustez, berpentsatzea gizarte-esparruen arteko loturak, hau da, estatua, ekonomia eta familia (Jennings, 1992: 119).

## **2.5. Laburpena**

Nahiz eta gero eta ekarpen feminista gehiago egon ekonomia zientzian, diziplinaren edukiak ez dira momentuz asko aldatu. Beste gizarte zientzietan, aldiz, gero eta emakume gehiago parte hartu dutenetik, soziologian, psikologian edo historian adibidez, emakumearen eginkizunak eta rolak emakumeek egindako azterketatik garatzen joan dira eta zientzia horiek eduki horiek barneratzen hasi dira.

Ekonomian, aldiz, ekonomia teoria nagusia (paradigma hegemonikoa), kontserbadorea, kapitalismoaren aldeko apustu sutsua eta apologia egiten duen eskola neoklasikoa izan da, eta eskola horrek genero sartzearen kontrako jarrera bortitza erakutsi du (Nelson, 1995: 131; Conrad, 1992: 565; Bartlett, 2000: 68-69; Shackelford, 2000: 486; Barker, 2000:390). Hegemonia horrek "izugarri zaildu du feministei interesatzen zaien galderari erantzunak lortzen". Atal hau amaitzeko ekonomilari feminista batzuen burutazioak eta hausnarketak bilduko ditugu ditugun kezka era labur batean azaltzen baitituzte:

Bergman-ek dio: Ekonomista gehienek enpresa-aske sistemarekin (kapitalismorekin) lotura ideologiko oso nabarmena dute, eta beren lan-bizitza osoan oso arduratuta daude sistemari egiten zaizkion kritikei aurre egiten (ez dela ondo funtzionatzen, etabar). Ekonomista horiek, beraz, ez dute kasu handirik egingo emakumeen kexei azken hauek esaten dutenean sistema ez dela batere zuzena haiekiko, edo gobernuaren parteartea defenditzen dutenean emakumeen aldeko jarrera erakutsi dezan".

Aldi berean, paradigma neoklasikoan, bereziki, ekonomiaren interes eremua era

estu eta baztertzailer batean eratu da: truke harremanetan zentratu da, merkatutik kanpo egiten diren jarduerak ekonomikoak baztertuz.

Strassmann-ek 1993an esan zuen: ezagueraren ekoizpena prozesu sozial bat dela, eta beraz, oso loturik dagoela, bere sortzailearen balore pertsonal, sozial, kultural eta politikoei. Merkatu ez-perfektu baten aurrean aurkitzen gara, non sartzeko hesiak dauden, eta partehartzaileen hautaketa, sozializazio eta eskusio praktikak dauden. "Ideiak testuinguru sozial eta politiko zehatzetan garatzen dira,..teoria baten egileak duen sexu, klase eta arrazarekiko jarrerak eta bere kokapenak eragina dute teoria horren edukian".

Sandra Harding-ek dio (1986): "feministek gizarte zientzietan galdera feministak egitetik erradikalagoak diren galdera metodologiko feministak egitera pasatu dira. Feminismoak ez du soilik aurreko teoriari buruzko kritikak egiten, baizik eta gaur egun gizarte teoriaren atal nagusiak berriz idatzi edo berokatu behar direla aldarrikatzen du".

Ekonomian ez da aldaketa hau ematen hasiko, era antolatu batean, 1990. hamarkada hasi arte. 1992an sortuko da International Association for Feminist economics, eta 95etik aurrera Feminist economics aldizkaria ere sortuko da. Hala ere bere eragina astiro joango da zabaltzen: 1995ean inkesta bat egin zen EEBBetan American Economic Association-en 400 bazkideen artean, eta haietatik %70k uste zuen ekonomia feministak ez duela batere eraginik izan ez metodologian ez ekonomi teoriaro har. Horrela, emakumeei kezkatzen zaizkien gaiak ez dira jorrotzen, edo baldin badira, era anti-feminista batean egiten dute.

Ekonomia teoria nagusiaren mugen gainetik, teoria honen kritika feminista ez ezik, ekonomia teoria feminista eraikitzen ari da. Hasieran saiatu zen indarrean zeuden paradigmatan emakumeen azterketa txertatzen baina ikusi da hori ez dabilela, eta proposamenak marko teoriko berria eskatzen duela. Vandellac-ek adierazten duenez, kategoria ekonomiko berreraikuntza feministak, lana, adibidez, gaur egungo diziplinaren mugak gainditu behar ditu ikuspuntu epistemologikotik, eta horretan datza gaur egungo lana.